

BIZKAIKO LEHEN ARRETAKO BATZORDEAK
ELKARRETARATZE-DEIA EGIN DU
DEUSTUKO ETENGABEKO ARRETA-GUNEAREN ALDE (EAG)

Elkarretaratzea abenduaren 18an, ostirala, izango da, goizeko 11:00etan EAGaren aurrean.

Bizkaiko Lehen Arretako Batzordeak (ELA, SATSE, SME, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak) salatu duenez, Deustuko PACeko aurrez aurreko arreta azkenean ixten bada, beste pauso bat izango da Osasun Sailaren eta Osakidetzaren murrizketa-estrategiaren bidean. Horregatik Batzordeak bi erakunde horiek premiatzen ditu iragarritako itxiera ez burutzera.

Osakidetzak erabaki du zerbitzu hori gauez, 00:00etatik 08:00etara, ixtea. Argi dago herritar guztiei orain arte eskaini zaien osasun-zerbitzu baten murrizketa bat dela; eta, gainera, ondorio larriak izango dituela, bai pazientearentzat, bai osasun-sistema publikoarentzat berarentzat.

Azpimarratu behar da Osakidetzak berak honela definitu dituela Etengabeko Arreta Guneak (PAC): **"Hil ala bizikoak ez diren gainerako premiako arretak behar izanez gero, jo beharreko lehen zerbitzua da"**.

Hala, neurri horrek, praktikan, Lehen Arreta are gehiago kargatzea dakar; baina, batez ere, Basurtuko Ospitaleko larrialdiak gainez egitea dakar, Izan ere, larrialdi-zerbitzu horiek, dagoeneko, arreta-presio handia izaten dute. Eta oraingo lan-karga gutxi balitz bezala, hemendik aurrera ospitaleko larrialdiei ez dagozkien patologien eta kasuen arreta leporatu nahi diote. Hala da, patologia eta kasu arinak orain arte PACetan artatu izan dira, Osakidetzak berak ondo definiturik daukan bezala. Hori dela-eta, larrialdirik larrienak artatzea zailagoa izango da aurrerantzean, eta aldi berean Basurtuko larrialdietara doazen pazienteen itxaronaldiak luzeagoak izango dira. Pandemia-garai honetan, gainera, neurri horrek kutsatze-arriskua areagotuko da, bai pazienteen artean, bai haien senide eta lagunen artean, eta baita ospitaleko langileen artean ere.

Azken urteotan Lehen Arreta gero eta beteago egon da, eta pazienteek, beren osasun-zentroan arreta hartzeko, zenbait egunetan itxaron behar izaten dute; baina PACak dira herritarrek gehien erabiltzen dituzten zentroak, printzipioz horren larriak ez diren gaitzak lehenbailehen tratatzeko. Oraingo pandemia-garaian, gainera, inoiz baino beharrezkoagoak dira, telefono bidezko arreta baino ez dagoelako.

Iragarritako ekimen hori Osakidetzak PACen zerbitzua murrizteko edo desagerrarazteko duen strategiaren baitan dago. Gogora dezagun duela gutxi Gorlizko PACa itxi nahi izan zutela, eta herriko mobilizazioari esker itxiera bertan behera gelditu zela. Beste adibide bat Zumarragako PACen dugu, non arreta-ordutegia laburtu den. Eta beste horrenbeste gertatzen da Bergaran eta Elgoibarren.

Pandemia honek zerbait erakutsi badigu, osasun-sistema publiko, sendo eta kalitatezko bat izateko beharra dagoela da. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren politikak kontrako bidetik doaz, osasun publikoa gero eta gehiago argaltzearen bidetik.

Aipaturiko murrizketan atzera egiteko eskatzen diogu Osakidetzari; eta horren haritik Bizkaiko Pertsonaleko Batzordeak eta PACeko langileek dei egiten diegu herritarrei Deustuko ambulatorioaren aurreko elkarretaratzera joatera, abenduaren 18an, 11:00etan.

Euskal Herria, 2020ko abenduaren 16a.

LA JUNTA DE PRIMARIA DE BIZKAIA CONVOCA UNA CONCENTRACIÓN EN DEFENSA DEL PAC DE DEUSTO

La convocatoria es el viernes 18 de diciembre a las 11 de la mañana frente al PAC.

La Junta de Atención Primaria de Bizkaia, compuesta por los sindicatos ELA, SATSE, SME, LAB, CCOO, UGT y ESK, ha denunciado que el cierre presencial del PAC de Deusto supone un paso más en la estrategia de recortes de la Consejería de Salud y de Osakidetza, instando a ambas a que no lleven a cabo este cierre parcial.

Osakidetza ha decidido que este servicio deje de operar por las noches, desde las 00.00 y hasta las 8.00 de la mañana. Es evidente que estamos ante el recorte de un servicio sanitario que dejará de ofrecerse a la toda la ciudadanía y que además, tendrá graves consecuencias tanto para el/la paciente, como para el propio sistema sanitario público.

Hay que remarcar que la propia osakidetza define los Puntos de Atención Continuada (PAC) como **“el primer servicio al que hay que acudir en caso de que se requiera una atención urgente no vital”**.

Así, esta medida, en la práctica, supone sobrecargar aún más a la Atención Primaria pero sobre todo, supone saturar las urgencias del Hospital de Basurto, urgencias que ya, con carácter habitual, tienen una elevada presión asistencial. Y si esto fuera poco, ese colapso se va a derivar de la atención de patologías y situaciones que no corresponden a las urgencias hospitalarias, sino que debido a su carácter más leve, deberían ser atendidas por el PAC, como bien define la propia osakidetza. Ello, va a dificultar la atención de las urgencias más graves y al mismo tiempo, va a aumentar el tiempo de espera de los/as pacientes que acuden a las urgencias de Basurto. En esta situación de pandemia, además, esta medida supone un aumento del riesgo de contagio, tanto de pacientes, acompañantes y de la propia plantilla.

En los últimos años, en los que la Atención Primaria está cada vez más saturada y en los que, los/as pacientes tienen que esperar varios días para ser atendidos/as en su Centro de Salud, situación a la que se le ha sumado con la pandemia la imposición de la atención telefónica, los PACs se han convertido además, en el recurso utilizado por la ciudadanía para encontrar una solución temprana a situaciones previsiblemente menos graves.

Esta maniobra forma parte de una estrategia de Osakidetza de reducir o incluso eliminar el servicio de los PACs. Recordemos que recientemente quiso cerrar el PAC de Gorliz y que la movilización logró parar ese cierre. Otro ejemplo es lo que sucede en el PAC de Zumarraga, en el que también se ha restringido el horario de atención. Y lo mismo sucede con Bergara o Elgoibar.

Si algo nos ha demostrado esta pandemia, es la necesidad de contar con un sistema sanitario público fuerte y de calidad. Sin embargo, las políticas del Gobierno Vasco transitan en sentido contrario y debilitan cada vez más la sanidad pública.

Exigimos a Osakidetza la reversión de este recorte, y por ello, desde la Junta de personal de Bizkaia y los/as trabajadores/as del PAC, convocamos a la ciudadanía el próximo viernes 18 de diciembre a las 11.00 a una concentración en el ambulatorio de Deusto.

Euskal Herria, 17 de diciembre de 2020.